

Saio pilotua Donostiako Guardaplata elkartearen egin da, Bidebieta auzoan

Harrera ona izan du kutxabanken helduentzako trebakuntza digitaleko lehen tailerrak

- **Parte-hartzaileek online banka-eragiketa nagusiak egiten ikasi dute, bai eta kutxazain automatikoetan eta telefonozko bankan aritzen ere**
- **Doako ikastaro hauen helburua teknologia berrien eta beren ezagutzaren artean dagoen etena betetzea da**

2021eko urriaren 15ean. Kutxabankek, Donostiako Udalaren lankidetzarekin, helduentzako antolatu dituen **trebakuntza digitaleko lehen tailerra** egin du goizean, online aritzeko ohiturarik ez duten bezeroei bankaren oinarriko tresna-digitalak erabiltzen irakasteko helburuarekin.

55 urtez gorako 20 lagunek parte hartu doako saio pilotu honetan, Donostiako Bidebieta auzoko Guardaplata elkartearen egoitzan.

Tailerrean, finantza-erakundeko kudeatzaile espezializatuek azaldu dizkiete online aritzeak aurrez-aurreko bankaren aldean dakartzan abantailak, edozein orduetan eta edozein tokitan Kutxabanken zerbitzu guztiak eskura baitaude, norberaren etxebizitzatik inora joan beharrik gabe eta inon zain egon beharrik gabe.

Saiora joan direnek smartphone edo tableta bana eraman dute, eta handik sartu ahal izan dira Kutxabanken Banka mugikorrera eta online Bankara.

Beren gailu pertsonalen bidez, ohikoenak diren eragiketak bete ahal izan dituzte, kudeatzaileen laguntzarekin. Saldoak edota daten arteko mugimenduak kontsultatu ahal izan dituzte, ordainagiriak ordaintzen ikasi dute, transferentziak betetzen, txartelak piztu, itzali eta blokeatzen, jakinarazpenak abiarazten, edota beren kudeatzaile pertsonalarekin harremanetan jartzen.

Kutxabankeko gune digitaletan aritzeko eskarmentua zutenek, gainera, mugikorraren bidezko ordainketa plataformen erabilera ezagutu dute, batik bat Kutxabankpay eta Bizum aplikazioen bitartez. Saio osoak bi ordu inguru iraun du, eta amaieran segurtasun gomendioak eman dizkiete parte-hartzaileei, mugikorrean eta online Bankan eginiko eragiketetan iruzurra saihesteko.

Kutxabankek gaur egun milioi batetik gora bezero digital ditu, beraz finantza Taldearen bezero guztien % 55 baino gehiago dira tresna hauen ohiko erabiltzaileak.

Pandemiak iraun duen hilabeteetan nabarmen egin du gora Kutxabankeko banka digitalarekin bat egin duten adineko pertsonen kopuruak. Bada, hala ere, online aritzeko ohiturarik ez duen bezeroen profil zehatz bat. Era honetako tailerren helburua, hain zuzen ere, teknologia berrien irisgarritasunaren artean eta erabiltzeko ezintasunaren artean dagoen **etena betetzea** da.
